



5. DIRUSARREREN ITURRIAK

¡PA¡ S.L. enpresaren helburu nagusia diru-sarrera egonkorrak eta iraunkorrak izatea da, izan ere, enpresaren etorkizuna bermatu nahi dugu. Gure negozio-eredua diru-iturri ezberdineko estrategia batean oinarritzen da, arriskuak murriztu nahi ditugulako eta enpresa modu jasangarrian martxan mantentzeko.

Lehenengo eta diru-sarrera iturri nagusia patinete elektrikoen alokairua da. Bezeroek, aukera ezberdinak izango dituzte patineteak alokatzeko: orduka, eguneko, hilabeteko edo urte osorako. Aukera hauek eskaintzeak aukera ematen du edozein betero mota ezberdinengana iristeko, eta hauek dira adibide batzuk: : **turistak** Bilboko erdigunean edo Enkarterrietan patinetearekin ibiltzeko, **langileak** Ezkerraldean eguneroko joan-etorrietarako, eta **ikasleak** unibertsitateara joateko. Gainera, prezioak ez dira oso altuak, malguak dira, , bakoitzaren beharretara egokitzeko. Adibidez, turista batek ordu bateko alokairua egin dezake edo aldiz, langile batek hilabeteko plana kontratatu. Bigarren iturria udalaren diru-laguntzak dira. Enkarterriko udal gehienek mugikortasun jasangarria sustatzeko planak dituzte, eta IPAI SL horretan laguntzen du: gure zerbitzuak erabiltzerakoan, kutsadura murrizten da eta trafikoari alternatiba eskaintzen zaio. Horrela, ¡PA¡ S.L.-k diru-laguntzak jaso ahal izango ditu, batez ere garraio publikoa gutxi dagoen Enkarterrietan eta Ezkerraldeko herrietan. Udalaren laguntzek hasierako inbertsioak estaltzen lagunduko du , eta enpresari egonkortasuna ematen dute.

Hirugarren iturria publizitatea da. Beste enpresek beren iragarkiak gure patineteetan jartzeko aukera izango dute. Horrela, patineteek mugitzen diren bitartean, enpresak jarri duen publizitatearen ikusgarritasuna maximizatzen da. Publizitate hau gure diru-sarrerak gehitzea ahalbidetuko du, eta, horretaz gain, publizitatea, , bezeroei prezio merkeagoak eskaintzeko balioko du. Adibidez, kafetegi batek (**TEIKE** adibidez) bere logoa jar dezake patineteetan, eta bertako bezeroei modu errazean iristeko aukera izango du.

Bestalde, etorkizuneko iturri berriak ere aztertzen ditugu, adibidez: **partzuergoak** beste garraio enpresekin edo turismo-agentziekin. Horrela, patineteak ez dira bakarrik pertsona bakarrei alokatuko, baizik eta talde turistiko edo enpresa taldeentzat ere erabilgarri izango dira. Horrek gure diru-sarrera asko handitu dezake, batez ere asteburuetan eta udan (opor garaian). .

Hitz gutxitan, ¡PA¡ S.L.-k diru-sarrera iturri ezberdin eta jasangarriak izango ditu: aloksirua, udalen laguntzak, publizitatea, partzuergoak.... Diru sarrerei esker, enpresa finantzaz sendoa eta iraunkorra izango da, eta herritarrei zerbitzu oso seguru, eroso eta erabilgarri eskainiko die.

